

Magia freskagarriekin

Gogoratu hitz magikoak:
Artxila mortxila

Behar dituzu

- Gasdun edari freskagarri bat (Coca Cola, adibidez)
- Tresna puntadun bat (orratz potolo bat, adibidez)
- Errotulatazailer bat

Zer egin

1. Orratz potolo batez, egin zulo bat lataren albo batean, goiko aldean.
2. Lata ireki gabe, hasi husten zulotxotik edaria ateraz, **baina zeharo hustu gabe!** Noiz arte, bada? Pixka bat uzkuratzen den arte. Izan ere, husten joan ahala, lata uzkuratzen joango da, eta itxura traketsa hartuko du.
3. Eta horixe kontatu lagunei: *“Jaun-andreok, lata hauxe aurkitu dut gaur goizean, eskolarako bidean. Baina orain egarri naiz; beraz, edan egingo dut.”*
4. Disimuluan, estali zulotxoa hatz batez, eta eragin indarrez latari. Berehala hartuko du jatorrizko forma.
5. Lasai-lasai tapa ireki, eta ikusleen aurrean edan.



Trukua

Lataren estalkitxoa errotulatazailer beltzez margotzen baduzu, irekita dagoela emango du. Margoa hatz batez erraz ezaba daitekeenez, latari eragiten diozun bitartean margoa kendu, eta lata itxita dagoela emango du.



Komenigarria heldu
baten laguntza

Zer gertatu da?

Edari freskagarri horrek gas (CO_2) asko du, eta, horrelako edariak astintzen ditugunean, gasak likidotik askatzera eta zabaltzera jotzen du (horregatik ateratzen dute zarata latek irekitzean). Baina zulotxoak ixten badiogu,

gasak ezin du urrutira ihes egin, eta, beraz, latak ematen duena bakarrik zabaltzen da. Gasa hedatzean ahalik eta bolumen handiena hartuko du, eta indar horrek eragingo du latak jatorrizko itxurara itzultzea.